

ENTRELENGUAS

Residencia colaborativa transfronteriza

ENTRELANGUES

Résidence collaborative transfrontalière


**HIZKUNTZEN ART
LEAN**

Mugaz gairdiko elkalanerako
egoitza

II
Huarte

ARTE GARAIKIDEKO ZENTROA
CENTRO DE ARTE CONTEMPORANEO

**LE
SECOND
JEUDI**


ESTRATEGIA PIRENAICA
STRATÉGIE PYRÉNÉENNE
ESTRATEGIA PIRINENCA
PIRINIOETAKO ESTRATEGIA
ESTRATEGIA PIRENENCA

HIZKUNTZEN ARTEAN

Hizkuntzen artean Pirinioetako iparraldean eta hegoaldean sormen-prozesuak trukatzeko laguntzen duen egoitza artistikoen proiektua da. Le Second Jeudi eta Uharte Zentroak elkarlanean sustatutako proiektua da, eta Pirinioetako mugaz gaindiko lankidetzarako mikroproiektuen deialdiak babesten du.

Hizkuntzen artean Le Second Jeudi eta Uharte Zentroan itzulpenaren kontzeptuaren inguruko esparru tematiko komun bat duen elkarlaneko egoitza artistiko baterako deialdiarekin hasten da. Kontzeptu hori, plano etimologikotik, alde batetik bestera (trans, lat.) gidatzeko prozesu (ducere, lat.) gisa ulertzen da. Horrela, zeharkako harremana sortzen da, lurraldeari, kulturari eta teknikari dagokienez proiektu artistiko komun bat garatzea ahalbidetuko duen harremana.

Topaketaren aterkipean, egoitza hainbat etapatan garatuko da: mugaren alde banatan deialdi bat egin ondoren, bi artista (edo kolektibo) hautatuak Le Second Jeudik elkarrekin hartuko ditu Villa Madeleine (Boucau) ikerketa hasteko: hilabete batez etorkizuneko lankidetzaren oinarriak trukatu, esperimentatu eta finkatzeko aukera izango dute egoiliarrek. Ondoren, hilabeteko lana egingo da Uharte Zentroan, ekoizpen-laboretegiak artisten eskura jarriko dira proiektu komuna ahalbidetzeko. Ekoizpen artistikoko leku osagarrietan murgiltzeko bi garai horiek, bi itzulketa-une ekarriko dituzte lurralde bakoitzean.

Mugaz gaindiko herrien arteko kontaktuak ulermenarekin eta trukearekin zerikusia duten ondorioetan barneratzeko aukera ematen du, hizkuntzen, besterenak edo komunak, gaitasun semantikoak mugatuta edo zabaldua. Hizkuntza egiteko moduak zalantza egiten dute,, indartu egiten dute, erratu egiten dira elkarrekin sortutako sorkuntzan, egote batetik sortu eta hizkuntza mintzatuan eta idatzian, gorputz-hizkuntza, sinestesia (zentzumenen korrespondentzia), soinua, irudia, marrazkia, anbiguotasunekiko jokoak, komunikazio-arauak, dibertsioa, fikzioa, eta abar bihurtuta itzultzen da, guztiak ere praktika artistiko eta poetiko garaikideak.

Proiektuaren izaera irekiak arte garaikidearen arloan lankidetzaren modu berriak esperimentatzeko aukera ematen die artistei. Aukera ematen du bestearen kultura ezagutzeko moduak ikusteko, baliabide teknikoak eta sortzaileak bateratzeko, eta erreferente komunak berpizteko edo elkarrizketa-modu berriak planteatzeko. Artistak sakontzeko baliabideekin kokatzen ditu muga. Muga, elkargune eta espazio afektibo eta inguratzaileak sortzeko gai den elementu gisa hartzen delarik. **Hizkuntzen artean** zirrikitutik zirrikitura sartzea eta irtetea sustatzen du, zuloatik hutsunera, zirrituetan dagoenaren sormen-aukerak ezagutzeko.

Le Second Jeudi

Le Second Jeudi elkarteak ikusizko arteen arloan gazteen sorkuntza babesten eta zabaltzen du. Lurraldean sortzen diren ekosistema eta dinamikei kasu egiten die, eta lankidetzan proiektuak hasten ditu beste kultur eragile batzuekin, arte garaikideko eskualdeko eszena bat sortzeko, artisten premiekin eta egungo arazoekin bat etorritik. Tokiko artistak profesionalizatzea eta publikoarentzat/ren kezka berriak garatzea ditu helburu.

Elkarteak bi espazio ditu, bata bestearengandik gertu:

- Villa Madeleine, Boucau-n, ikusizko artistei eskainitako tailer partekatuak, zuzendaritza artistikoa eskaintzen dienak.
- Station V, Baionako antzinako zerbitzu-gune bateko erakusketa-gunea, non programa bat eskaintzen duen beste kultura-eragile batzuekin lankidetzan.

Uharte Zentroa

Uharte Zentroa (Nafarroa) ekoizpen, esperimentazio eta ikerketa artistikorako zentroa da. Komunitate artistikoari baliabide material, ekonomiko eta hezkuntza-baliabide ugari ematea du helburu. Ekoizpen artistikoko zentro gisa, hainbat esparrutako artistek izan dezakete lanerako espazioa, hala nola arte plastikoak, eszenikoak, ikusizkoak, soinuak, etab, eta kategoria ezagunetan sartzen ez diren guztiak. Esperimentazioa eta ikerketa sustatzen dira, bai eta ezagutza sortzea ere. Helburu horrekin, zentroa hainbat tresna tekniko eta teknologikoz hornitzen ari da, eta, gainera, hainbat baliabide eskaintzen zaizkie artistei, bai ekonomikoak egoitzen bidez, bai formakuntza profesionala. Gainera, arreta berezia jartzen du hezkuntza-komunitatea arte-komunitatearekin lotzeko prozesuak sortzean, esploratzeko hezkuntza-aukera berriak irekitzea eskatzen duen elkarrizketa eraldatzaile batetik.

HARTZAILEAK

Deialdiaren helburuetatik abiatzen diren ekoizpen-, sorkuntza- eta/edo ikerketa-prozesu bat garatzeko interesa duten edozein eremutako artistak.

Egoitza hau Pirinioetako hegoaldeko pertsona (edo kolektibo) bati (Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroa Garaia eta Errioxa) eta iparraldeko beste pertsona (edo kolektibo) bati (Pyrénées Atlantiques (64), Hautes Pyrénées (65), Haute Garonne (31), Ariège (09), Pyrénées Oriental (66)) zuzenduta dago.

Goian deskribatutako jatorrizko bi baldintzak betetzen dituzten lantaldeek osatutako hautagaitza bateratuak ere onartuko dira.

ZER ESKAINTZEN DA

- 2.000€ (zergak eta atxikipeak barne), artista/kolektibo* bakoitzarentzako ordainsari gisa.
- 4.000€ ekoizpen bateratuaren kontzeptuan.
- Le Second Jeudi eta Uharte Zentroko lan-espazioak, dauden baliabide tekniko eta teknologikoak barne.
- Ostatua* Iruñean eta Baionan hilabetez eta dietak (gehienez 600€ hilean).
- Artisten bizilekuaren eta erakundeen arteko hasierako eta amaierako joan-etorria*.
- Le Second Jeudiko eta Uharte Zentroko lantaldeen laguntza proiektuaren garapenean.

* Kolektiboen kasuan (pertsona bat baino gehiago haien artean formalizatu beharrik gabe), prestazio horiek (ordainsariak, ostatua eta garraioa) kolektiboak izendatutako ordezkari bati esleituko zaizkio, edo kide guztien artean banatuko dira.

DATAK

Deialdiaren itxiera: 2023ko otsailaren 5eko 23:55ean.

Hautaketa, deialdia itxi eta gehienez hilabeteko epean jakinaraziko da.

Egoitzaren iraupena:

- Le Second Jeudi: 4 aste apirilean.
- Uharte Zentroa: 4 aste maiatzean.

Memoriaren aurkezpena eta gastuen justifikatzea: 2023ko irailaren 30ean.

BALORAZIO IRIZPIDEAK

- Proposamenaren kalitate artistikoa.
- Proposamenaren interesa eta deialdiaren helburuei eta egoitza sustatzen duten guneei buruzko gaiak.
- Baliabide ekonomikoei eta egutegiari dagokionez bideragarria izan dadila.

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Izena emateko, Uharte Zentroaren webguneko inprimaki digitala bete behar da:

<https://www.centrohuarte.es/eu/hizkuntzen-artean-mugaz-gaindiko-elkarlanerako-egoitza/>

Bertan dokumentu bakarra erantsi behar da PDF formatuan (izena_abizena.pdf, max. 5mb), honako hauek barne:

- Deialdiaren ildo tematikoei buruzko motibazioa (gehienez bi orrialde).
- Lan egiteko metodologiaren proposamena (gehienez bi orrialde).
- Eskaera errazago ulertzeko aurretiazko lanen eta/edo proposamenarekin lotutako lanen irudiak (bideoak barne. Online plataformetarako estekak sartu).
- Parte-hartzailearen biografia edo curriculum.
- NANaren fotokopia edo deialdiaren xede diren lurraldeetan 2022ko urtarrilaren 1a baino lehen erroldatuta egotearen ziurtagiria.

***GARRANTZITSUA: Ez dira baloratuko eskatutako dokumentazio guztia aurkezten ez duten eskabideak.**

PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Deialdi honetara aurkezteak oinarri hauek eta konpromiso hauek onartzea dakar berarekin:

- Egoitzak irauten duen bitartean egoilarrek, Le Second Jeudi eta Uharte Zentroan ezarri beharko dute beren lan-eremua.
- Funtsezko edozein aldaketa Le Second Jeudiri eta Uharte Zentroari jakinarazi beharko zaie.
- Egoitza bertan behera geratu behar baldin bada Le Second Jeudiri eta Uharte Zentroari behar besteko aurrerapenaz jakinarazi.
- Proiektua amaitzean, proiektua modu bateratuan agertuko da Le Second Jeudi eta Uharte Zentroak aukeratutako gune batean.

- Laguntza hau jasotzea ez da bateraezina beste erakunde batzuek proiektu bererako emandako beste laguntza batzuekin, baldin eta diruz laguntzen diren gastuak ez badira Uharte Zentroak edo Le Second Jeudi zentroak bere gain hartutakoak.
- Laguntza hauek bateraezinak dira Uharte Zentroak eta Le Second Jeudik proiektu bererako emandako beste laguntza batzuekin.
- Egindako lanak egileenak izango dira. Uharte Zentroak eta Le Second Jeudik online edo paperezko formatuko argitalpenen bidez erreproduzitu eta zabaldu ahal izango dute proiektu osoa edo haren zati bat, betiere bakoitzaren baimenak aipatuz. Uharte Zentroak eta Le Second Jeudik deialdi honetatik aurrera sortzen den dokumentazio guztia artxibatuko dute.
- Proiektuak argitalpenak, web-orria, bideoak eta abar argitartzea eskatzen badu, proiektuak laguntza jaso duela adierazi beharko da, esaldi honekin: “Proiektu honek Le Second Jeudi eta Uharte Zentroaren Entrelenguas / Hizkuntzen artean / Entre-langues erakundeen laguntza jaso du, Pirinioetako mugaz gaindiko lankidetzarako mikroproiektuen deialdiak lagunduta” eta Le Second Jeudi, Uharte Zentroa eta Pirinioetako Estrategiaren logoak izan beharko ditu, gainera aldeztatik jakinarazi beharko da.
- Amaitzean, proiektuaren garapena jasotzen duen memoria bat aurkeztu beharko da (irudiak eta/edo bideoak barne), bai eta egindako gastuen justifikazioa ere (ordainketen faktura eta egiaztagiriek eta horien azalpen labur batekin).

***GARRANTZITSUA: Adierazitako egunean bi dokumentuak entregatzen ez badira, laguntza galduko da.**